



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

AITOR AGIRRE ALKORTA

**zinegotziak**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2011ko abenduaren 14an, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta presidente izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

- 1.- 556/2011 Dekretua – Itziar Balerdi Urdampilleta, obratako baimena.
- 2.- 561/2011 Dekretua – Gizarte Larrialdietarako laguntza etetearen onarpena.
- 3.- 562/2011 Dekretua - Gizarte Larrialdietarako laguntzaren onarpena.
- 4.- 563/2011 Dekretua - Gizarte Larrialdietarako laguntzaren onarpena.
- 5.- 568/2011 Dekretua – Arantxa Garmendia Mayo, obratako baimena.
- 6.- 585/2011 Dekretua – Endesa Energia S.A.U.ren 2011 urteko 3. hiruhileko likidazioa.
- 7.- 586/2011 Dekretua – Urriko fakturen onarpena.
- 8.- 587/2011 Dekretua – Urriko nominen onarpena.
- 9.- 588/2011 Dekretua – Josune Zubeldia Etxeberria, obratako baimena.
- 10.- 590/2011 Dekretua – Telefonica. Obratako baimena.
- 11.- 593/2011 Dekretua – 2011 urteko 3. hiruhilabeteko uraren zergaren errolda onartzea.



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

- 12.- 594/2011 Dekretua – 2011 urteko 3. hiruhilabeteko zaborraren zergaren errolda onartzea.
- 13.- 605/2011 Dekretua – Endesa Energia S.A.U.ren 2011 urteko 3. hiruhileko likidazioa.
- 14.- 615/2011 Dekretua – Mariano Urbizu Zabala. Obratako baimena ez ematea, baldintzak betetzen ez diren bitarte.
- 15.- 617/2011 Dekretua – Angel Garrido Alonso. Obratako baimena ez ematea, baldintzak betetzen ez diren bitarte.
- 16.- 628/2011 Dekretua – Construcciones Oriako S.L. Bermea itzultzea.
- 17.- 630/2011 Dekretua – Acuña S.A. Bermea itzultzea.
- 18.- 634/2011 Dekretua – Azaroko nominen onarpena.
- 19.- 635/2011 Dekretua – Azaroko fakturen onarpena.
- 20.- 636/2011 Dekretua – Esmeralda Caballero Cea. Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren hobaria onartzea.
- 21.- 638/2011 Dekretua – Igor Arin Usandizaga. Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren hobaria onartzea.
- 22.- 654/2011 Dekretua – Gaurko bilerako deia.
- 23.- 658/2011 Dekretua – Juan San Sebastian Murua. Obratako baimena onartzea.

### **3.- 2/2011 KREDITU ALDAKETA**

#### **“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 2 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

#### **PROPOSATZEN DA:**

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
210.449.01.01	Bestelako Mantenimenduak	24.756,82	6.000,00	30.756,82
210.551.01.01	Kamio,Kale eta Bideen Mantenimenduak	500,00	50.000,00	50.500,00
211.439.01.01	Udaletxeko Mantenimendua	1.000,00	614,45	1.614,45
221.433.01.01	Kaleko Argi Indarra	12.000,00	2.000,00	14.000,00
221.433.02.01	Kaleko Argi Indarra - Irunzubi	5.000,00	285,58	5.285,58
227.121.01.01	Garbitasun Enpresa	23.200,00	173,64	23.373,64
430.456.01.01	Kultura Batzordea	1.000,00	185,25	1.185,25
625.121.01.02	Inpresora, Fotokopiagailua	330,40	653,72	984,12
933.010.01.01	Maileguen Amortizazioak	50.867,30	3.836,48	54.703,78
<b>GUZTIRA</b>		<b>113.654,52</b>	<b>63.749,12</b>	<b>177.403,64</b>

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
310.000.00.09	Udal Ur Hornidura	21.576,08	8.734,70	30.310,78
410.411.01.99	E.J. Osasun Zentruko Gastuen Konpentsazioa	2.543,00	6.474,10	9.017,10
870.000.00.01	Diruzaintzako Gerakina	-----	48.540,32	48.540,32
<b>GUZTIRA</b>		<b>24.119,08</b>	<b>63.749,12</b>	<b>87.868,20</b>

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu Aldaketarako 2. zk.ko espedientea, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**4.- UDAL ZERGAK**

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TARIFAK ALDATZEA**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tarifak honela geldituko lirateke:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	2011 URTEA	IPC 2011 - 3%	2012 URTEA
TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiago	32,15	0,96	33,11
	9tik 11,99 ZF. Bitarte	62,85	1,89	64,74
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	104,76	3,14	107,90
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	145,21	4,36	149,57
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	187,43	5,62	193,05
	20 ZF. Gorakoak	228,10	6,84	234,94
AUTOBUSAK	21 eserlektik beherakoak	143,81	4,31	148,12
	21etik 50 bitartekoak	204,72	6,14	210,86
	50etik gorakoak	255,96	7,68	263,64
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik behera	72,98	2,19	75,17
	1000tik 2999 bitartekoak	143,81	4,31	148,12
	2999tik 9999 bitartekoak	206,72	6,20	212,92
	9999tik gorakoak	255,96	7,68	263,64
TRAKTOREAK	16 ZF beherakoak	30,50	0,92	31,42
	16tik 25 bitartekoak	47,94	1,44	49,38
	25tik gorakoak	143,81	4,31	148,12
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA	750tik 1000 bitartekoak	30,50	0,92	31,42
	1000tik 2999 bitartekoak	47,94	1,44	49,38
	2999tik gorakoak	143,81	4,31	148,12
ZIKLOMOTOREAK		7,63	0,23	7,86
MOTOZIKLETAK	125 c.c. Bitartekoak	7,63	0,23	7,86
	125tik 250 bitartekoak	13,06	0,39	13,45
	250tik 500 bitartekoak	26,18	0,79	26,97
	500tik 1000 bitartekoak	52,31	1,57	53,88
	1000tik gorakoak	104,56	3,14	107,70

Ibilgailuen Gainerako Zergaren Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

### **UR HORNIDURA TASAREN TARIFAK ALDATZEA**

Ur Hornidura Tasaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Ur Horniduraren Tasaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Ur Hornidura Tasa honela geldituko lirateke:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA- 0,28 – 0,42 – 0,56**  
**PROPOSAMENA - 2012**

KONTZEPTUA		GUZTIRA
Ura – Etxeak	270 kontagx 36 m3 x 0,28 x 4	10.886,40
- Lokalak	11 kontagx 36 x 0,42 x 4	665,28
- Industriak	13 kontag. X 36 x 0,56 x 4	1.048,32
Infraestrutur Kanona	294 kontag. x 7,00 x 4	8.232,00
Kontagailuen Kanona	294 kontag. x 1,35 x 4	1.587,60
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>22.419,60</b>
<b>GASTUEN AURRIKUSPENA</b>		
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa- 53.000 m3 x 0,622 €/m3	32.966,00
	Infraestrutur Kanona	9.991,00
	Kalitate Kontrola	558,26
	Bestelako Mantenimenduak	1.000,00
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>44.515,26</b>
<b>DIFERENTZIA</b>		<b>- 22.095,66</b>

<b>DIRUBILKETA 2011</b>		<b>26.231,80</b>
<b>GASTUA 2011</b>		<b>44.515,26</b>
<b>DIFERENTZIA</b>		<b>- 18.283,46</b>

Ur Hornidura Tasa Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

**ZABOR ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK ETXEZ ETXE BILTZEAGATIKO TASAREN TARIFAK ALDATZEA**

Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasaren tarifen aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzailtzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasa honela geldituko lirateke:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**ZABORRAK**

KONTZEPTUA	URTEA	SARRERAK	IRTEERAK	DIFERENTZIA
ZABORRAK	2012			
Sarrerak – Aurrikuspenak		27.600,00		- 21.444,17
Tolosaldeko Mankomunitatea			49.044,17	
<b>GUZTIRA</b>		<b>27.600,00</b>	<b>49.044,17</b>	<b>- 21.444,17</b>
ZABORRAK	2011			
Sarrerak – Aurrikuspenak		26.080,60	45.250,52	
Tolosaldeko Mankomunitatea			45.250,52	
<b>GUZTIRA</b>		<b>26.080,60</b>	<b>45.250,52</b>	<b>- 19.169,92</b>

**TARIFAK**

KONTZEPTUA	2012	2011
Zaborrak – Etxeak – 320 Err	18,00 €/hiruhilab	17,35 €/hiruhilab
Zaborrak – Lokalak – 12 Err	30,00 €/hiruhilab	27,85 €/hiruhilab
Zaborrak – Industr – 13 Err	60,00 €/hiruhilab	55,15 €/hiruhilab
<b>PROPOSAMENA</b>	<b>2012</b>	<b>SARRERAK</b>
Zaborrak – Etxeak – 320 Err	18,00 €/hiruhilab	23.040,00
Zaborrak – Lokalak – 12 Err	30,00 €/hiruhilab	1.440,00
Zaborrak – Industriak – 13 Err	60,00 €/hiruhilab	3.120,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>27.600,00</b>

Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeagatiko Tasa Tarifa Aldaketako proposamena, aho batez onartua izan da.

**5.- 2012 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA**

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2012 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**SARRERAK**

Kapitulua	Izena	€Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	104.843,62
2	Zeharkako Zergak	25.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	66.152,70
4	Transferentzi Arruntak	402.943,68
5	Ondare Sarrerak	1.060,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>600.000,00</b>

**GASTUAK**

Kapitulua	Izena	€Guztira
1	Pertsonal Gastuak	195.045,99
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	206.453,28
3	Finantza Gastuak	2.387,26
4	Transferentzi Arruntak	98.883,45
6	Inbertsioak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	97.230,02
<b>IRTEERAK GUZTIRA</b>		<b>600.000,00</b>

2012 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2012ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aho batez onartuak izan dira.

**6.- MOZIO EZBERDINAK**

**EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE**

Une historiko bizi dugu Euskal Herrian. ETA erakundeak borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin, ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da. Azken hamarkadetan bizi izan dugun konfrontazio armatua behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eskenatokiaren ateak ari dira irekitzen.



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

Gernikako Akordioan hitzartutakoari jarraiki, eta Aieten Nazioarteko Komunitateak zabalduen mandatuaren norabidean, ETArek erabakiak, gatazka politikoa, bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaitu. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, euskal preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan, ezinbestekoa da, “ Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da-eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoa eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin: Preso guztiak Euskal Herrira ekartzea, dispertsioarekin amaituz, Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea, Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboak behin-behineko askatasuna ematea, Legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei, baldintzapeko askatasuna ematea, Legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe eta azkenik, Zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legedia indargabetzea”.

Euskal gizarteak urte asko daramatza, preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoek aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, estatu espainiar zein frantsesari, beren legea betetzeko eskatzen.

Munduan eman diren prozesu politiko desberdinetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Era berean, konponbide politikoaren baitan, presoek ere parte izan behar dutelarik. Ziklo bat behin betikoz itxi eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria indarrez irekitzeko.

Azken asteetako hitz eta ekintzei begira jarriz, Madril eta Parisetik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispertsioak bere horretan jarraitzen du. Senitartekoei milaka kilometro egiten jarraitzen dute. Hamarnaka euskal presok, Parot Doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra betetzen jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat presok baldintza kaxkarretan jarraitzen dute. Egoera hau errotik aldatzea eta atzerapenik gabeko urratsak ematea ezinbestekoa deritzogu.

Hori guztia kontuan hartuko, honako adierazpen hau aurkezten dugu, LIZARTZAKo Udaleko Osoko Bilkura honetara, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Udal honek, bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzen du. Hala nola, besteak beste, dispertsioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea.





**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

- 2.- Udal honek datorren urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoen eskubideen alde burutuko den Manifestaldiarekin bat egiten du.
- 3.- Norabide horretan eta mobilizazio horren harira, abenduaren 16ean udal honetako hautetsiek baraua egin eta eguerdiko 12tan kontzentrazioa burutuko dugu.
- 4.- Gure udalerriko eragile guztiei deialdia luzatzen diegu urtarrilak 7ko mobilizazioarekin bat egin eta beronen eskutan dagoena egin dezaten bere ekimen kultural, sozial edo kirolaren alorrekoen ordutegiak berau indartze aldera kokatu ditzaten.
- 5.- Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien gainetik giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena denon artean osatu dezagun.

Euskal Presoen Eskubideen aldeko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **TENTSIO ALTUKO LINEAREN INGURUKO MOZIOA**

### Arrazoiaren azalpena

Azterketa eremua dauden Udaletan, Ingurumen eta Nekazaritza eta Itsas Ministerioaren Ingurumen Kalitate eta Azterketa Zuzendaritza Nagusiaren jakinarazpen bat jaso zen 2011ko abuztua, "20110173LIE proiektuan Dicastillo deituriko 400/220 Kv azpiestazioa, 400 KV-ko Linak eta haue loturiko beste Lineak (Iruñea), Ingurumen-Inpaktuaren Azterketaren gainean egindako kontsultaren erantzuna"-ren inguruan egindako txostena.

Jasotako txostena *Red Eléctrica de España S.A.* enpresak, Gipuzkoako Itsasoko azpiestazioa eta Dicastilloko 400/220 kv azpiestazioa lotuko dituen 400 kv-ko Linea, eta L/400 kv Castejon-Muruarte Dicastilloarekin elkartzen dituen loturaren proiektuari buruz ari da. Aztertzen diren lotura berriek, 400 kv-ko bi linea (guztira 120 km inguruko luzerarekin) eta 6 ha. Hartuko lituzkeen azpiestazio elektriko bat aurreikusten ditu.

Proiektu hau Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte linea ordezkatzeko dator, 2010eko azaroaren 12ko BOE-n ageri den moduan, ingurumenari eragiten zizkion kalte eta proiektuak sortu zuen jendarteko oposizioarengatik baztertua izan zena. Honen ingurutik, eztabaidan jartzen zaigun proiektu honek, aurreko proiektua baztertzea



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

eraman zuten arrazoi berdinak mantentzen ditu, gutxienez intentsitate berdinarekin, handiagoarekin ez bada.

Linea berri honen ezaugarriak aurrekoaren antzekoak dira, hau da, 42/46 metroko altuera duten dorreak, bata bestearengandik 400/500 metroko distantziara, lau oineko hormigoizko oinarriekin, beraien artean 5,90 eta 10,14 metrotako distantzia dagoelarik. Bere inguruan, zuhaitzak landatzea eta etxe eta industria azpiegiturak eraikitzea debekatua geratzen da.

Ingurumen eta paisaiarekiko eraginak ez dira onargarriak, izan ere, Hasierako Dokumentuan proposatutako ibilbide guztiek neurri batean edo bestean babestutako eremuei eragiten die, Red Natura 2000 barne. Guztira, goi-tentsioko lineak Europa, Estatuak, Nafarroa edota Euskal Autonomi Elkartearen legediek babesten dituzten berrogeita hamar eremuezberdinetan izango luke eragina. Hain zuzen ere, kontuan hartzen diren 19 zatietatik 17-tan babestutako eremu edota espezieren baten gain eragina izango du, eta ondorioz, proposatzen diren 69 aukera ezberdinetatik bat berak ere, ingurumen ikuspegi batetik, ez litzuke beteko gutxiengo baldintzak.

Gauza bera gertatzen da osasunean eragina duten eremu elektromagnetikoekin, aukera ezberdinetatik bat berak ere ez baititu betetzen Europar Batasunak ahokutzen dituen badaezpadako distantzia irizpideak. Zehazki, 19 zatietatik, 14-tan herri gunek daude 500 metroko distantzia baino gutxiagora, Nafarroa eta Gipuzkoako 43 herri ezberdin hain zuzen ere. Hasierako Dokumentuan ageri diren 69 aukera ezberdinak aztertuko bagenitu zatiz zati, konturatuko ginatke pasabide bat bera ezin dela onartu, guztietan gutxienez herriren bat aurki baitezakegu segurutzat hartzen den distantzia baino gutxiagora.

Guzti honi zenbait arlotan dauden informazio eskasi larriak erantsi beharko genizkioke, esaterako, esparru sozio-ekonomikoan, aisialdi eremu eta turismoan izango dituen eraginak, patrimonioan izango diren ondorioak edo zeharkatzen dituen lurraldeetan dagoen arautegiarekin bultzatzen den lurralde ereduakiko bateragarria den edo ez.

Proiektu honek Nafarroa eta Gipuzkoako lurralde zabal bati oso era negatiboan eragingo diolakoan, paisaian, ingurumenean, herritarren osasunean, ekoizpen azpiegituretan edo lehen sektorean izan ditzakeen eraginengatik,

Udal honi proposatzen zaio:



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

- 1.- Gipuzkoako Itsasoko azpiestazioa eta Dicastilloko 400/220 kv azpiestazioa lotuko dituen 400 kv-ko Linea, eta Dicastillon aurreikusten den azpiestazioaren proiektuarekin erabateko desadostasuna azaltzea.
- 2.- *Red Eléctrica de España S.A.*-ren Hasierako Dokumentuan ageri diren balizko pasabide guztiekin erabateko desadostasuna azaldu, eta era berean, Goi-Tentsioko aipatutako Linak ez duela inongo justifikaziorik interes orokorrerako.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, EAEko Gobernu eta Parlamentuari, eta Ingurumen eta Nekazaritza eta Itsas Ministerioari aipatutako proiektuari ezezkoa eman diezaioten eskatzea, interes orokorrerako klabeak diren eremuetako paisaia eta ingurumenean onargarriak ez diren ondorioak izan ditzakeelako.
- 4.- Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta EAEko Gobernuari, Ingurumen, Nekazaritza eta Itsas Ministeriora, eta Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministeriora bidaltzeaz gain, komunikabideen bitartez publiko egitea.

Tentsio Altuko Linearen ingurumo mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOA**

“Tolosaldea Osasun Publikoaren alde” koordinakundeak, honako adierazpena egiten du Lizartzako Udaleko udalbatzak eztabaida eta onar dezan.

### **ZIOAK**

Irailean zehar Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak TOLOSALDERAKO OSASUN ARRETA EREDU BERRIA eman die jakitea herritarrei. Proiektu berri honetan, Izaskungo Amaren Anbulatorio publiko eta espezializatuaren itxiera progresiboaren berri ematen da eta ezpezialitate guztiak Asuncion Klinika pribatu kontzertatura artatuko direla erabaki. Horren ondorioz osasun sistema publikoa kaltetu eta ahuldua geldituko da Tolosan zein Tolosaldean.

Bestetik, Tolosaldeako Osasun sare publikoa da ospitale publiko bat egun ez duen eskualde bakara eta baldin eta egitasmo hau aurrera badoa izango ez duen Euskal Herriko eskualde bakarra. Tolosaldeak eskualde bezala indar eta pisu demografiko nahikoa du eskualde mailako ospitale bat izan eta herritarrei egokia izango zaien zerbitzu bat eskaintzeko.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Hori guztiagatik mozio hau aurkezten da Lizartzako udalaren Osoko Bilkurak, honako hau

ONAR DEZAN:

- 1.- Eusko Jaurlaritzak aurkezten duen Osasun arreta eredu berri arbuizatzea.
- 2.- Herritarren osasunaz arduratzeko osasun-sistema egokiena publikoa dela eta Tolosaldean osasun-sistema publikoak atentzio osoa izan behar duela aldarrikatzen du Lizartzako Udalak. Baita, lehen arreta zein espezialitateen zerbitzuak, zuzenean osasun zerbitzu publikoak eskaini behar dituela, hauek sistema pribatura desbideratu gabe aldarrikatzen du.

Tolosaldea Osasun Publikoari dagokion mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA UDAL BATZARI AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Pertsonak, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiak behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako, hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

Euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Ez du arriskuan jartzen euskaldunaren erdara(k). Ezta gaztelania eta frantsesaren garapen osoa ere euren lurralde historikoetan. Espainiak eta Frantziak ordea, gaztelania eta frantsesa inposatzen dituzte Euskararen Herrian eta trabak jartzen, euskaraz bizitzeko. Traba politikoak, juridikoak, ideologikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.

Euskal Herrian ireki den aro politiko berri honetan, hizkuntz gatazka konpontzea, lehenatasunezkoa da. Hitz egin behar da hizkuntz asimilazioaz. Euskal Herrian gertatzen den gaztelania eta frantsesaren hedatze sozial izugarriaz. Bereizi behar dira, zein den hizkuntza horien zati onuragarria, - euskal herritarrentzat, euskaldunentzat eta Euskal Herriarentzat-, eta zein zati asimilagarria. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Herritarrok gara euskara erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko eragile, babesle eta berme. Horrenbestez, ezinbestekoa da herri gogoia indartzea. Euskararen alde egotetik "euskaraz bizi nahi dut"era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitetik "euskaraz egitera" portaera jiratzeta eta eguneroko ohitura bihurtzea.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskarazko elebitasuna praktikan jartzea eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

- 1.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko.
- 2.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin.
- 3.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere barne funtzionamendua euskaraz izan dadin.
- 4.- Udal honek udalerrri honetako euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, gure herrian eta atal zein arlo ezberdinetan, euskaraz bizitzeko eskubidea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzen du.

2011-12-03AN, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN.

Euskararen nazioarteko egunari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **7.- BESTELAKOAK**

### **GIPUZKOAKO HONDAKINAK. ZERO ZABOR TALDEA**

Gipuzkoako Hondakinak. Zero Zabor Taldea. Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari jakinerazpena egin zaio, Lizartzan, "Zero zabor" helburua lortzeko, Lizartzako Udalaren nahia, Partzuergoak kontuan hartu eta honen arabera joka dezan, egungo azpiegituren plangintza eta eraikuntza geldiarazi dezan eta gaika bilduko ditugun frakzioen tratamendua behar bezala egin dadin; bilketan burututako ahaleginaren ondorioz sortutako kantitateak oinarritzat hartuz, azpiegiturak modu egokian antolatu eta eraiki ditzan.

Era berean, jakinarazi zaie, bilketa sistema ezarri ahal izateko azterketa egingo duela Lizartzako Udalak eta ahal den azkarren martxan jartzea aurreikusten duela.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

ETXEBIZITZEN GAIA

Udal honek, ondorengo urteetarako etxebizitzaren plana bat egiteko asmoa du.

Horretarako, etxebizitza berriak egiteko dagoen beharra eta herrian dauden etxebizitza hutsekin zer egin aztertuko da, aurreko urteetan egin diren promozioei buruz informazio bildu, inguruko herrietan zer egiten den e.a.

LIZARTZAKO ESKOLA BERRIA

Abenduaren 13an, Gasteiz-en Hezkuntza Saileko Sailburuordea den, M<sup>a</sup> Soledad Esteban Galarza) Julen Bengoetxea (Gipuzkoako Delegatua) eta Teresa izeneko teknikariarekin bildu zen Udalaren ordezkariak (Alkatea, Idazkaria, Arkitektoa eta Aholkularia).

M<sup>a</sup> Soledad Esteban-ek egoeraren azalpen labur bat egiteko eskatu zigun, honela egiten zaiolarik:

- Eskola berriaren beharra.
- Zerrategi aldean urbanizazioa egiteko arazo ekonomikoa.
- Udalaren ezintasuna kostu hauei aurre egiteko.

Sailburuordeak, ondorengo adierazi zigun:

- Eskola berriaren beharra adierazten du.
- Hezkuntzak eskola berria egiteko orube urbanizatu bat behar du.
- Hezkuntzak ez du urbanizaziorako dirurik jartzen.
- %60-%40 proposamena Udalaguntzaren barnean, konponketak egiteko dirulaguntzak dira. Inoiz ez eraikin berri edo urbanizazioetarako.

Hezkuntzako Teknikariak gehitutakoa:

- Eskola Berriak "betirako" izan behar du.
- Eskola Berriak ezin du *txapuz*a bat izan.
- Haurrak, leku nahiko, patio itxi, .. behar ditu. (Udalak betebeharrak hauekin ados dago, ondorengo gehituz, Lizartzako orografia berezia kontutan hartu behar dela, "Lizartza ez da Gasteiz" "ibaitik urrun mendia").

Udalak, egoera honen aurrean, kokapen alternatiboak jartzen ditu mahai gainean:



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- Alondiga: Hezkuntzako teknikariak segituan deskartatzen du.
- Plazan: Interesa azaltzen dute.
- Udalak alternatiba hauek garatzeko Gipuzkoako Hezkuntzaren Arkitektoarekin izandako zailtasunak adierazten ditu. Momentu horretan beste arkitekto baten izen eta telefonoa ematen dizkigu.

Epeak: Ez ditu epeak ematen. Proiektuak aurrera eramateko erabiltzen duten prozedimendua azaltzen digu. Proiektuak urte hasieran onartzen dira, ondoren egiteko. (Lizartzako 2013-2014 ??)

Lehenbait lehen irtenbide egokiena bilatzea da helburua

Eskola Berriaren gaia, aztertu eta eztabaidatzen da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, gaueko zortzi t'erdia direnean, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

**ALKATEAK**  
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

**IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK**  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia